


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 6 PEZETA

EPAIKETA BURGLOSEN

NON ZER

● ELIZA TA EUSKAL-KULTUTA	
Latxagak	3 garrenean
● ALDE GUZTIETAN	
Knörr-ek	3 garrenean
● AZAROA MUNDUAN ZEHAR	5 garrenean
● ARTE-KRONIKA	
Kortadik	7 garrenean
● GOTZAI-MINTZALDIA	11 garrenean
● KARDABERAZ AITA	
Albisuk	12 garrenean



Zenbaitentzat, aspaldidanik du izena Burgosek. Katedral eder ura besterik euki ez bazukean ere, ezaguna izanzen zen. Baiña iñoiz entzun ote da egun auetan ainbat aldiz munduan uri orren izena? Eta ba ote da irakurtzen dakianik, goizero edo astero eskura dator kion izparringian izen ori arkitu ez duanik?

Nornaik ba-daki zergatik gertatu den ori, zerk banaturazi duan mundura Burgosen izena.

Uri orretan erabakitzen dan auzian, 16 euskaldun abertzale dira epaituak, beren Erriaren nortasuna iritxi naiez ari izan duten azpilanarengatik. Lan orretan, ba-dira ilketak, atrakoak... orrelako burruka batek geienetan berekin izaten dituan gauzak.

Ba-da munduan amaika orrelako auzi! Politika goraberak sortzen dituzten arazoak dira, ez dira gaiztakeriaren ondorenak. Eta auzi oiek, zer pentsa aundia ematen diote edozeini, zenbait aitzaki ba-dute-lako zuzentasun kontuan.

Nori etzaio buruan sortzen

onako galdera au, epaiketa oiek dirala-ta: Indarrak alde besterik gertatu ba'lira gorabera ontan, epaileak eta epaituak ere, ez ote ziran era berean gertatuko?

Bai Biafarrak gudan nagusi atera izan ba'lira, nijeriarrek etzuten lanik izango aiek epaitzen. Eta zenbat Biafra eta Nijeria dago munduan? Baina orduan ere, galdera berdiña egin bearko genduan. Orduan ere auziak zuzentasunik ezaren arrixku berdiña izanen zun. Zergatik? Orduan ere, bi burruketarako bat bestearen epaile izanen zelako; eta epailea, bere auzian izanen zelako epaile. Eta mundu guztiak ba-daki —eta ez gaur goizetik—, ori ez dala zuzen epaitzeko biderik onena.

Arazoak ondo erabakitzeko, epai-maiean ez ditek eseri, artan parte duanik. Beste norbait billatu bear da alderdi batean ez dagona ez egitez ez biotzez.

Noiz sortuko ote dira munduan, iñungo ez diran auzi-maiak, nunaiko diran arazoak epaitu el izan ditzaten eta zuzentasuna gallen atera dedin!

ARABAKO ORDEKA ETA GIPUZKOA

Araba ta Gipuzkoa, probintzi senideak dira. Elkarren arteko bidetan nagusienetakoa, Gasteiztik Bergarako da ta; epaitu al izan ditzaten eta zukamioi ta beribil-gurdi-Jabeak, oso jorratuak eta illetak jotzen ari zaizkigu.

Aurreratu bearrean, atzeraka bai goaz. Ikus bestela, nolako tarte ondutuak ditugun alde oietan. Bidearen biurgunetan ere, negargarriak dau-de leku askotako bide azpiak. Zuloak, bide azalak janda, biur dijoan tokitan bear aña-ko jasoketarik ere ez...

Eta kontu au, Arabako Foru-Diputazioari ta Gipuzkoako zenbait Eralguntzari dagokie zuzen-zuzen. Bideak zabaldu, begiei ikuspidea erraztu, zulo ta azpi janak berdindu...

Ontan, industri jabeak eta beribil jabeak iritzi berdiñekoak dira. Etxegarate gainetik ere, sekulako pasaizua degu; ta dirudienez, eta guk uste

baiño leenago ala ere, pasai-zu ori gutxitu bearrean geitu egingo da.

Leen Anglo-Vasco izeneko trenak tonelada asko ta asko eramaten zuan alde batetik bestera. Gaur tren ori kendu ezker, kamiñuak artu bear izan du pixu oien karrio-lorra. Orra, beraz, nundik eta nola obetu bearrean, okertu ta zail-lagotu egin zaizkigun, arabar eta gipuzkoarroi gure arremanak.

Eun urteren buruan, emen gaituzu, ortan, atzeratuak. Arabak Salbatierra (Agurain euskeraz) aldea garrantzi aundikoa du. Gipuzkoak ere, Zumarraga aldeak Goierri ta Beterrira jotzeko ateak oso kontuan artzekoak dauzka. Alde batetik, Bergara, Mondragoi, Oñati, Legazpi, Beasain eta Ordizia. Bestetik, Azkoiti-Azpeiti, itsasorako bidean... Orra garbi gure begien aurrean ditugun alderdiak.

Amaika aldiz itzegin izan digute beste bide bati buruz: Elgea mailotik zear Gipuzkoa ta Araba urreratzeko. Ta ez dabil oker ori esan duana. Izan ere, Irun-Madrid bidea asko arinduko luke Elgean zear lijoakean bide berri orrek.

Leen ere, Munduko leenengo gerrate denboran, Elgeako bideok artzen zituzten zaldi-kontrabandoa egiten zutenek. Ta gaur bertan gipuzkoar asko dabil Arabako bide or-tatik, ardoaren kontrabando ta abar egiñaz.

Orra nola bide onen arazoa, probintzi biren mesede izan ditekian. Beraz, pozik ikusiko genituzke Gipuzkoako ta Arabako Diputazioak, sarritxo bilduko balira, bide au eta Bergarako bidea nola urratu naiz obetu ditezkean erabakitzeko.

Amillaitz